

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko martxoa | 007. zenbakia | 1,50€



SADHUAK

Indian santu

KALIFORNIA BEHEREA | HARKAITZETAKO ELIZAK | KITESURF | AFRIKA HEGOALDEA | BALJERRI



Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektroniko bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoian azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruñia distribution & services, S.L.ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informazioak jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herriar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruñia distribution & services SLren (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herriar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 007

2022ko martxoa

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 156.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Fernando
Rojo Tolosa

ARGITARATZAILEA:

Astero.
Herriar Berri SLU.
Zazpi Haizetara
aldizkariaren lan
taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki
Agirrezabalaga

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +
Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@astero.net

TELEFONOA:

943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek
Inprimategia.
Zamudio



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



06 KALIFORNIA BEHEREAN Nola ez, Tijuana hiri mitikoan hasten da “road trip” hau, aberriaren abiapuntuan, edo amaieran, nondik begiratzen den. Kalifornia Beherea bi munduren arteko unibertso txiki bat da, Mexiko eta Estatu Batuen artekoa, bien eragin handia izan zuena. Mexikoko lurralde guztien artean mexikar izaera gutxien duena.

16 HARKAITZETAKO ELIZAK Ebro Garaian izan gara, Jainkoarekiko fedea historian zehar utzitako paisaia liluragarri bezain ezezagun artean.



24 KITESURF Zanzibarreko zenbait hondartza kitesurflarien topaleku tropikala bihurtu da azken urteotan, azken urteotan, bereziki haize boladen eraginez.




28 SADHUAK Ganges ibaiaren inguruan ibili gara sadhuen bizimoduaz gehiago jakin nahian. Aszeta hinduak dira, Indiako gizon santuak.



36 AFRIKA HEGOALDEAN Munduko eskualderik zirrargarrienetako batean egindako bidaia da hau, Afrikako hegoaldeko herrialdeetan barna.



44 BALJERRI Ordunteko bihotzean dago Baljerri mendia, 1.106 metroko gailurra. Ordu eta erdi pasatxoan irits daiteke Lanzas Agudas auzotik.



50 **BERTATIK BERTARA:** “Arditik ardira”, jolas erraldoia herriko historia ezagutzeko 55 **EGIN PANAK:** “Tromelin, esklabo ahaztuen uhartea”, Korrika; dFERIA; Arabako Bertsolari Txapelketa; “Aventureros” liburua 56 **HIRIAK LABURREAN** Oslo, diseinuzko hiriburua 60 **MUNDUAN PASIERAN** “Venezia, La Serenissima”; “Imagine Picasso Immersive Exhibition”; “Game of Thrones” parkea...



HOLI JAIALDIA

Kolore eztanda, udaberriari ongietorria emateko

Phalguna hilabeteko ilargi betearen biharamunean. Egun horretan –aurten, martxoaren 18an– munduko festarik koloretsuenetakoa ospatzen da; batez ere, Indian eta Nepalen. Holi jaialdia da, udaberriaren ekinozioaren etorrera ospatzeko kolore eztanda benetan ikusgarria.

Indian ospakizun ia guztiek erlijio kutsua duten arren, Holi berezia da, zenbait egunez aberats eta pobreen edo gizon eta emakumeen arteko oztopo sozialak apurtzea lortzen omen duelako festak, guztiek batera gozatzen baitute jai-giroaz.

Nork bere burua margotzen du lehenbizi eta, ondoren, koloretako hautsak (*gulal*) jaurtitzen dizkiote elkarri. Hori bai, koloreek desio positiboak transmititu behar dituzte nahitaez. Eta, horretarako, bizirik dirauen sinbologia tradizionalaren arabera aukeratu behar dira koloreak: horiak errukia adierazten du; laranjak, baikortasuna; urdinak, lasaitasuna; gorriak, maitasuna eta garbitasuna; eta berdeak, berriz, bizitasuna.

Holiren jatorriari dagokionez, jaialdia hainbat kondaira mitologiko hindurekin lotzen da, baina bada bat berezia: Deabruaren erregeak –Jirania Kashipu, bere burua benetako jainkotzat zuena– Prajlad semea hil nahi zuen, beste jainko batengana (Vishnu) zuen debozioagatik. Hiltzeko saiakerek kale egin ondoren, Kashipuk Holika alabari agindu zion anaiarekin batera su batean sartzeko, neskari suak ez ziolako kalterik egiten. Aitzitik, erregearen alaba sutan erre zen eta Prajlad, aldiz, bizirik atera zen Vishnuren babesari esker. Eta, hain zuzen ere, gertaera horri lotzen zaio ongiak gaizkiaren aurka lortutako garaipenaren ospakizuna. Egun, Holikaren heriotza irudikatzen duen su batekin hasten da jaialdia, eta bigarren egunean, berriz, Dhulhendi izenekoan, ongiak gaizkia garaitzea ospatzen da. Getty Images



KALIFORNIA BEHEREA

Mexikarretik gutxien duen Mexiko





Kalifornia Beherea bi munduren arteko unibertso txiki bat da, Mexiko eta Estatu Batuen artekoa, bien eragin handia izan zuena. Hemen ez dugu aurkituko historiaz eta tradizioz betetako hiri handien Mexiko monumental eta kolonial hori. Kalifornia Beherea da Mexikoko lurralde guztien artean mexikar izaera gutxien duena, baina gordetako sekreturik onenetakoa. Bertan erabat galtzea oraindik posible den leku horietako bat.

Testua eta Argazkiak **Nuria LÓPEZ TORRES**

Kalifornia Beherea penintsulako road trip hau, nola ez, Tijuana hiri mitikoan hasten da, aberriaren abiapuntuan, edo amaieran, nondik begiratzen den. Tijuana Kalifornia Behereko hiri jendetsuena da. Mundu mailan, jende gehien ibiltzen den muga dago bertan. 50 milioi pertsonak zeharkatzen dute urtero San Ysidro igarobidea bi norabideetan. Kultura- eta merkataritza-gune bat izateagatik hiri global gisa sailkatuta dagoen hau munduan gehien bisitatzen den mugako hiria da. Robert Rodríguez-en muga-hirien inguruko film kutsua duen hiria.

Iparraldean Lege Lehorraren garaia zela fundatu eta garatu zen Tijuana, alkohol-zimendu likidoen gainean. Gaur egun, oraindik ere, parranda, kantinak eta goiko bizilagunentzat debekatuta dagoen guztia aurki daitekeen helmuga da. Tijuana hiri bizia izaten jarraitzen du, non bizitza trago bakoitzean bizitzen den eta dantza pauso bakoitzean harrapatzen den, corrido norteño eta mariatxien artean.



Erreportajeko lehen orrialdeetan, San Luis Gonzaga badiatik gertuko paisaia eta Valle de los Cirios harana. Lerroon eskuinean, Tijuana-Ensenada errepidea, eta, behean, bikote bat La Rumorosa begiratokian. Hurrengo orrialdeetan: Loberako itsaslabarra; surflari bat Ensenadako San Miguel hondartzan; “Bizitzaren Zuhaitza” artisau lana; Decantos upategiko sarrera; musika talde bat Tijuanan; Ardoaren Festa Guadalupen eta Encuentro Guadalupe jatetxeko platera.





Arratsaldean iristean, musika-tresnak daramatzaten musikariak joan-etorrian dabilta Iraultza etorbidean, hiriaren erdigunean. Hortxe daude musika-areto eta dantzaleku ugari, dende eta jatetxez gain.

Santa Zezilia plazan –bere banderatzeko koloretsuekin, Mexiko Hiriko Garibaldi plazaren parekoa– musikari-taldeak biltzen dira, ospakizunetan dabilta herritarrek beren melodia gogokoenak noiz eskatuko zain. Turistek derrigor bisitatu beharreko tokia; batez ere, Los Angelesera zuzenean iristen diren estatubatuarrentzat eta txinatarrentzat. AEBetako hiritik Tijuana jauzi egiten dute, bidaia aprobetxatuz inguruko herrialdea bisitatzeko.

Tijuana edo Mexicali utzi eta hegoaldera jotzen denean sumatzen da benetan estatuaren handitasuna.

ZINEMAKO DEKORATU HANDIA Nork ez du erretinan lasterketa amaigabe, sutsu eta bakartien irudi hori, basamortuko paisaietan barrena, sasitzaz eta kaktusez inguratuta, non haizeak hautsak harrotzen dituen zerumugan. Ezin konta ahala kilometrotan zehar, amerikar filmetan hain bestetan agertu den dekoratu horretan murgilduko da bidaiaria.



KALIFORNIA BEHEREA MEXIKARRETIK GUTXIEN DUEN MEXIKO



**Kalifornia Beherea
bere burua
asmatzen joan da
ahal izan duen
moduan, eta utzi
egin diote.
Lurralde horiek
luzaroan ez ziren
izan ez Estatu
Batuenak ez
Mexikorenak, eta
bere burua
asmatze horretan
bere gastronomiak
ere halaxe egin du**

Ingurune naturala da protagonista eta hiriak eszenatokitik desagertzen dira, beste protagonista batzuei bide emateko. Estatuaren hegoaldean, San Quintin udalerrian, Valle de los Cirios haran handia dago. Mexikoko flora eta faunaren babes-eremu handiena da berau. 15 metroko altuerarainoko kaktus erraldoi ugariekin batera narrasti eta ugaztun handiak ageri dira eszenan, hala nola *Ovis canadensis* (borrego cimarrón) direlakoak, pumak, basakatuak eta *Odocoileus hemionus* oreinak. 664 landare-espezie, 251 hegazti, 53 ugaztun eta 53 narrasti bizi dira bertan, eta munduan biodibertsitate handienetakoa duen basamortuetako bat da.

Kalifornia Beherea Kaliforniako golkoak (Mar de Cortes ere deitzen zaio) eta Ozeano Bareak bustitako penintsula da. Jacques Yves Cousteau biologo ospetsuak “munduko akuario” izendatu zuen Mar de Cortes itsasoa, munduan biodibertsitate handiena duen lekua delako.

ITSAS UGAZTUN UGARI Kalifornia Behereko penintsularen eta Mexiko kontinentalaren artean bizi dira ezagutzen diren itsas ugaztunen ia erdiak. Izurde-, itsas lehoi- eta zere arrunt balea-koloniek urtean zehar hainbatetan partekatzen dituzte ur hauek beste espezie batzuekin; esaterako, balea urdinekin, xibartekin eta orkekin.

Kaliforniako golkoak bustitako kostaldea hondartza bakartiz beteta dago makina bat kilometrotan, eta han txiki sentitzen da norbera, naturaren edertasun horren aurrean. San Luis Gonzaga badia baztertuan, ekainetik abendura bitartean, marrazo baleak ikusi eta ur epeletan murgildu gaitezke haien ondoan igeri egiteko, betiere haien ongizatea babesteko arau zorrotzak betez. Marrazo hori, munduko arrainik handiena kontsideratzen dena, eraso egiten ez duen animalia da eta planktonez elikatzen da.

Los Angelesko badian, San Luis Gonzagatik 180 kilometro hegoaldera, ere animalia zoragarri horiek elkartzten diren beste puntu bat dago eta bertan inongo beldurrik gabe hurbiltzen dira txalupetara.

San Quintín-El Rosario errepideko 47,5 kilometroaren parean, kostalde-ranzko saihesbide bat dago, eta, lurrezko pista batetik 5 kilometro mendi artean igaro ondoren, santutegi natural batera iritsiko gara. Bertan, ehun itsas otso eta itsas txakur baino gehiagok umatu eta atsedean hartzen dute. Haizearen eta itsasoaren higadurak harkaitzean eragindako krater natural batek babesa ematen die bisitarien begirada lotsagabeekin zerikusirik ez duten itsas animalia horiei. Ilunabarrean, zulo hori inguratzen duten itsaslabarrak kolore laranja eta horiz tindatzen dira, ozeano zakarraren astinduei aurre egiten dieten bitartean.

Pazifikoa zain egoten da San Miguel hondartzan goizero beren surf taulekin olatuak hartzera etortzen diren atleta gazteak noiz iritsiko. Goizeko 6etan sartzen dira goiztiarrenak uretan motorrak berotzen hasteko. Bitartean, lehen eguzki-izpiek berotzen dituzte herrialde honetan kirol hori jaiotzen ikusi zuen hondartzako arroak. Ensenada hirian dago hondartza, hain zuzen. Mugaren beste aldetik hainbestetan ikusitako eszenatokietara eramango gaituen dekoratu berria.

MEDITERRANEOKO ZAPOREA Ozeano Bareari begira dago Ensenada, hiririk politena eta Mexiko mexikarrena gehien gogorazten duena. Guadalupe haran hurbileko hiri nagusi hau Estatuko lekurik bisitatuenetako bat bihurtu da, enoturismoaren gorakadagatik.

Ibar honek klima mediterraneo ezin hobe du mahatsondoa landatzeko. Lehen ebanjelizatzaileek (batez ere, jesuitek, domingotarrek eta frantziskotarrek) landatutako 450 urtetik gorako mahastiak ditu. Mexikon ekoizten den ardoaren %90 haran emankor horretatik dator. Asteburuero, ondo jantzitako emakume eta gizonezkoek –gente fresa esaten diete pijoei Mexikon– ibarrean zehar sakabanatutako upeltegiak bisitatzeko dituzte, esperientzia sensorial batean murgilduz inguruko ardo eskusiboenak dastatzeko.

Upelategi batzuek ostatu originalak eta gastronomia chic bat eskaintzen dute, bisitaria atseginez eta xarmaz betetako ingurune batean sentiarazteko. Glamping delakoa modan jarri da; kanpinaren eta glamourraren arteko fusioa mahastien artean, mota guztietako kanpadendetan eta luxu guztiekin, ahalik eta esperientzia biribilena eskaintzeko.

Kalifornia Beherea bere burua asmatzen joan da ahal izan duen moduan, eta utzi egin diote. Lurralde horiek luzaroan ez ziren izan ez Estatu Batuenak ez Mexikorenak, inorena ez zen lurralde bat zen, eta bere burua asmatze horretan bere gastronomiak ere halaxe egin du. Miguel Ángel Guerrero sukaldariak kontzeptu bat asmatu zuen, “Baja-Med” sukaldaritza, bera buru duen gastronomia definitzeko, azken urteotan beste erakargarri bat eta erreferente nazional bihurtu dena.

Iparraldeko eta Asiako eragina duen sukaldaritza mexikarra da –Txinako immigrazio historikoagatik–, baita klima berezia ematen duten osagai mediterraneoak dituen ere. Querencia, Bruma edo Encuentro Guadalupe jatetxeak dira haraneko lekurik chic eta finenak, baina esan beharra dago Kalifornia Behereko gastronomia letra larriz idazten dela edozein errepide-jatetxetan edota mapan agertzen ez den edozein herritan.

JATETXE TRADIZIONALA Esthela Bueno andrearen gosariak munduko onenak direla diote. Gordon Ramsay bezalako sukaldariak joan dira Esthelak Guadalupe bailaran daukan jatetxe tradizionalera berarekin kozinatza. Emakume sendo eta irribarretsu hau barazki- eta arrautza-burritoak saltzen hasi zen, ez baitzuen haragia erosteko nahikoa diru. Haraneko soroetako langileei saltzen zizkien burritoak, eta gaur egun mila lagun baino gehiago joaten dira bere jatetxera sabela betetzera, hainbat orduz ilaran zain egon behar badute ere.

Gorputz, espiritu eta arimarentzako elikagaia da bidaia honetan, zeinean hain lurralde ezezaguna, hain ustekabekoa, hain benetakoa eta hain gutxi ustiatua deskubritu dugun. Munduan leku gutxi daude honen parekoak; iristen lehenak garen sentsazioa dugu, inoiz ez dugu bertan ikusiko turista oldea banderatzeko bati jarraituz, eta gizakiak kilometro eta kilometroetan gizakiaren arrastorik ez dagoen tokiak aurkituko ditugu. Bertako espazio amaigabeetan lau haizeetara “aleluia!” oihukatzen tokiak da hau.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Mexikora hainbat lineak hegan egiten dute; besteak beste, Iberiak, KLM-k eta Aeroméxico.

Ez dago hegaldi zuzenik Espainiatik Kalifornia Beherera, baina Aeroméxico eta Volarisek hegaldiak eskaintzen dituzte egunero Mexiko Hiritik Tijuana.

NOIZ JOAN

Kalifornia Behereak oso klima ona du urte osoan. Udaberriko eta udako hilabeteetan leku batzuetan nahiko tenperatura altuak izaten dira.

NON LO EGIN

Era guztietako ostaturen eskaintza zabala dago, gustu eta poltsiko guztietarako. Guadalupeko Encuentro hotela proposamen interesgarria da; mendien artean banatutako eta arroka handietan kokatutako kabina-gelak ditu. Hondartza bakartietan eta inguru bakartuetan libre kanpatzea aukera ona da abenturazaleentzat.


KONEKTIBITATEA

Kalifornia Behereak estaldura iristen ez den basamortu-eremu handiak eta leku oso urrunak ditu. Hori kontuan hartu behar da urruneko eremuetan kanpatzeko edo eremu isolatu batean denbora asko pasatzeko asmoa izanez gero. Eremu jendetsuenetan, aldiz, seinale ona dago.



EBRO GARAIKO HARKAITZETAKO ELIZAK

Arrokak zultatzen dituen fedea



Jainkoarekiko fedeak paisaia liluragarri bezain ezezagunak utzi ditu historian zehar. Horren adibide dira Iberiar penintsulako iparraldeko tenplu paleokristauak, egun goi-ordoki bakartietan, zereal soroetan, baso zaharretan edota haran arroksuetan aurki ditzakegunak. Arrokan bertan egindako elizak eta eremutarren bizitokiak ekarri ditugu orriotara, gehien-gehienak hildakoak lurperatzen zituzten nekropolien alboan eraikitakoak.

Testua eta argazkiak **Xabier BAÑUELOS**

Ezin dut saihestu. Eta, nahi ere, ez dut egin nahi. Ebro oraindik gazte baten inguruetan aurki daitezkeen harkaitzetan egindako tenplu eta eremitorioen barrunbeetan barneratzen naizen bakoitzean, Paulus Diaconus monje beneditarrak VIII. mendean idatzitako San Juan Bautistaren ereserkiaren lehen estrofako notak entzuten ditut nire baitan: «*Ut queant laxis, resonare fibris, mira gestorum, famuli tuorum, solve pollute, labii reatum, Sancte Ioannes*». Ez da kasualitatea justu kantu hori izatea nire gogoan biziberritzen dena, zerbaitegatik baita musikaren historiako garrantzitsuenetakoa. Hori baina, beste kontu bat da... Nire kasuan, notazioaren tetagrama ia ukitzera eramaten nauena, monje eremutarren abesbatzen ahotsetan kantuaeren oihartzun sakonek nolako soinua sortzen zuten irudikatzeko nahia izan ohi da. Lurrotara iritsi berria zen kristautasunaren lirika ziren oihartzun horiek, ahots monofonikoek harri arteko espazioetan abestuak, modu intimoan, barnerakoian, lurrari lapurtuak eta denboran izoztuak, kantu gregoria-noa ateoentzat ere fede irudipen bihurtzeraino.



GURUTZEAREN IRITSIERA Eskualde zabal batean ibiliko gara, Kantabriako Valderredible haranean hasi eta Palentzia eta Burgosekoko so-roetaraino hedatzen dena, baita erromatarrek *Hiberus flumen* deitutako Ebro ibaiaren urek arabar erriberak bustitzen dituzten lurretaraino ere. Bada, koka gaitezen Goi Erdi Aroan, lurron kristautzean inflexio-puntu izan zen VIII. mendean zehazki. Kristautasuna pixkanaka-pixkanaka baina etenik gabe joan zen ekialdetik heltzen augustoen inperioaren eskutik; lau mende behar izan ziren azkenean Teodosio enperadoreak kristautasuna erlijio ofizial bakar bihurtzeko.

Kristautasunaren eragina, hori bai, ez zen era homogeneousan iritsi Iberiar penintsulako leku guztietara. Txoko ugarik antzinako sinesmen propioei estuki lotuta jarraitu zuten eta horren erakusle argia zen euskal-kantauriar lurralde guztia. Ziurrenik, lurrotan V. menderako eza-guna izango zen dagoeneko gurutze kristaua, baina kristautasunaren presentzia ez zen VIII. mendera bitartean esanguratsua izaten hasi. Eta presentzia horren adierazle argienetakoa monjeen eta eremutarren komunitate txikiak izan ziren; anakoreta bakartiak izan ohi ziren, urrutiko



Erreportajea irekitzen, Cervera de Pisuergako San Vicente de Vado eremitorioa. Hurrengo orrian, Pinedoko Santiago koba. Azkenik, lerroon ondoan, goian, Ollereros de Pisuergako Justo eta Pastor Santuen Eliza eta Lañuko Las Gobas leize-multzoko Doktoareen Koba; behean, Markizko Santa Leokadiaren Kobako behe-erliebea, Presillasko San Migel ermita, Santa Olallako nekropolia eta Arroyuelosko San Azisklo eta Santa Victoriaren eremitorioa.



EBRO GARAIKO HARKAITZETAKO ELIZAK ARROKAK ZULATZEN DITUEN FEDEA



**Arroyuelosetik lau
kilometro
eskasera,
dagoeneko
Burgosen, gure
ustez ibilbide
guztiko elizarik
ederrena dago:
Presillas herriko
San Migel ermita.
X. mendekoa da,
eta Asturiasko
artearekin lotu
izan da.**

lekuak aukeratzen zituztenak euren kredoarekin bat bizitzeko, batzuetan Iberiar penintsularen inbasio musulmanak eragindako presiotik ihesi.

Zentzu hertsian kristautasun primitiboaz hitz egiterik ez badago ere, egia da gure inguruan emandako kristautasunaren sartzeko berantiarraz hitz egin dezakegula, adierazpide gisa lehen kristauak egindako eraikuntza soilak utzi zituenak, guztiak ere nolabaiteko arkaismo maila erakusten dutenak. Arrokan bertan egindako eliza eta eremitorioak dira, kasu askotan bene-benetako hipogeoak, eta lurralde zabal batean barreiatutako tenpluen eta ermitau komunitateen bizitokiak multzo zabala osatzen dute. VIII. mendearen inguruan hasi ziren eraikitzen gehienak eta ia XII. mendera arte joan ziren sortzen eraikuntza prerromaniko eta erromaniko gisa, betiere, estilo bisigotiko eta mozarabiarraren eragin argiarekin. Askotariko tamaina eta konplexutasun mailako eraikuntzak aurki daitezke, baina tenpluetako batzuek monumentaltasun nahia agertu arren, oro har txikiak eta xumeak dira, soiltasuna dutelarik ikur nagusi. Oinarritzko baliabideekin harria zizelkatuz egindako tenpluak dira, harkaitzak, irtenguneak, gune harritsuak edo haitz handiak baliatuz; normalean, noski, lantzeko askoz ere errazagoak diren hareharritzko inguruetan eginda daude.

Eremitorioak harkaitzean egindako bizitoki soilak edo zenbait elementuz osatutako guneak izan daitezke, jatorrizkoak edo gerora gaineratutakoak, adibidez kanpai-horma gisa. Normalean, hori bai, guztiek ere ehortzokiak dituzte, bai bizitokietan bertan, bai otoiizerako guneetan, bai inguruetan. Horrez gain, lurralde guztian zehar banatutako Goi Erdi Aroko dozenaka nekropoli daude, betiere tenpluotatik gertuko gailur arrokatu txikiak baliatuta eraikitakoak.

EBRO GARAIA ZEHARKATZEN Gure ibilbidearen bi muturrak Palentziako Cervera de Pisuerga eta Arabako Navaridas udalerriak izango dira. Batetik bestera 200 kilometro bakarrik dauden arren, arrokan egindako 50 eliza eta eremitorio baino gehiago eta 100 nekropoli baino gehiago pilatzen dira tarte horretan. Hori dela eta, subjektibotasunarekin jokatu eta batzuk aukeratzea beste irtenbiderik ez dugu izan. Cervera de Pisuergan abiatu dugu txangoa, San Vicente de Vado eremitorioa eta bertako hogeitahilobi antropomorfoak bisitatuz. Zelai baten erdian altxatzen den domo itxurako haitz txikia da, guztiz zulatuta dagoena. VIII. mendetik XII. mendera bitartean erabili zela uste da, eta bere itxurak, kokaguneak eta banaketa kaotikoak ezaugarritzen dute. Seguruenik hasiera batean eremutarren bizitoki soilak besterik ez zen izango, eta, gerora, ermita bihurtuko zuten.

Palentzian bertan jarraituz, Olleros de Pisuerga herrira jo dugu; Aguilar de Campotik oso gertu dago, hegoaldera. Bertan, Justo eta Pastor Santuen Eliza ederra dugu zain. IX. eta X. mendeen artean eraiki zuten parreta arrokatu batean eta, urteen poderioz handitzen joan zen pixkanaka-pixkanaka, bi nabeko tenplu erromaniko hipogeo bihurtu arte, kanoi ganga eta zirkulu erdiko gangadun abside eta guzti. Tenplua borobiltzeko, elizak kanpai-horma bat du harkaitzaren gainean, baita kanpandorre exentu bat ere.

Kantabriako Valderredible herrira jo dugu jarrian eta, bertan, X. mendeko antzeko eliza bat aurkitu dugu, Valverdeko Santa Mariari eskainitakoa. Elizaren kanpai-horma erromaniko altuan iraganean baoetaraino igotzeko aukera ematen zuen eskailera kiribil baten hondarrak ikus daitezke. Elizak arrokaaren gainean eraikitako kanpandorra ere badu. Elizak bi nabe ditu, itxura zakarrekoak, eta pilare karratu eta zirkularrez osatutako espazio zabal bat hartzen du. Elizaren inguruetako nekropolia ere aipatu beharrekoa da. Cadalso herriko San Zipriano eliza xumeagoa da, baita enigmatikoagoa ere. Ez dago argiki zehazterik noiz eraiki zuten; adituek VII. eta X. mendeen arteko datak aipatzen dituzte. Elizaren fatxadak sorginen etxe batean eta Gerra Zibileko bunker baten arteko zerbitu ekarriko digu gogora. San Azisklo eta Santa Victoriaren eliza, Arroyuelos herrian kokatua, guztiz ezberdina da. X. mendekoa da eta harkaitz batean landuta dago; bi maila ditu eta barnealdean aurkituko dugunak ezustean harrapatuko gaitu, nabeak, zutabeak eta kurbadurak aurkituko baititugu, baita eragin mozarabiar argiko ferra-arkua ere.

Arroyuelosetik lau kilometro eskasera, dagoeneko Burgosen, gure ustez ibilbide guztiko elizarik ederrena dago: Presillas herriko San Migel ermita. X. mendekoa da, eta Asturiasko artearekin lotu izan da. Bi koloreko hareharritzko mogote erraldoi batean eginda dago, ehunka urteko harizti batean. Ermitaren fatxada eta barnealdea harrigarriak dira, eta, tamaina alboratuz gero, Petra gogoraraziko digu. Elizak bi maila ditu eta harrian egindako eskailera batetik sartzen den tribuna bat ere badu; horrenbestez, oso ermita zabala irudituko zaigu, batik bat bertikalki. Hiru nabe ditu ermitak, erdi-puntuko arkuek banatutakoak, eta bikainki orekatutako hutsune sentsazioa eskainiko digu. Elizaren berezko edertasunari, hareharrian beti apetatsua izan ohi den higadurak zutabe eta hornei emandako formak gehitu behar zaizkie. Elizaren ondoan bi baitaiarri ere aurkituko dugu. Ermitaren inguruetan, berriz, seguruenik bizitoki bezala erabiltzen ziren leize-zulo ugari; hori ikusita, ingurua monasterio bat izan zela pentsa daiteke. Burgosen bertan, badira derriгор bisitatu beharreko beste leku batzuk ere: Arges herriko San Pedro basiliza eta Tartales de Cilla herriko San Pedro eremitorioa eta Portugaldarren Kobak.

Ibilbidea Euskal Herrian amaituko dugu, Araban. Lehen geldialdia Gaubean egingo dugu, Pinedoko Santiago haitz magikoa eta Corroko Mairuen haitzuloak bisitatzeko. Bidean aurrera egin eta Trebiñura helduko gara, Lañuko Las Gobas eta Santorkaria leize-multzoak bisitatzeko. Kristautasunak Iberiar penintsulan utzitako lehen aztarnen lekukotasun onenetakoa aurkituko dugu bertan; IV. mendetik IX. bitarterako aztarnak daude inguruotan, baita XI. mendera artekoak ere nekropolia kontuan hartzen badugu. Inguruotako paisaiak ikusgarriak dira berez, eta, horri kareharrian egindako koba artifizialak, elizak eta askotariko forma geometrikoko bizitokiak –batzuek inskripzio zaharrak ere gordetzen dituzte– gehituta, inguru benetan txundigarria aurkituko dugu. Ibilbideari amaiera emateko Bernedoko Markiz herriko Askanako leizeak edo Navaridaseko Santa Eulalia nekropoli bikaina bisita ditzakegu.

GIDA PRAKTIKOA

BESTE BISITA BATZUK

Kantabrian: San Pantaleon aztarnategia, Somerako Ama Birjinaren ermita eta Tobazoko basiliza. Palentzian: San Pelayoko eta San Martineko eremitorioak. Burgosen: Peña Horrero, Popilo eta Tejuelako Santa Mariako eremitorioak. Araban: San Martin de Valparaiso, Tobillasko koba, Santa Olallako nekropolia, San Salvadorko eremitorioa eta Remelluriko nekropolia.

BISITAK NOLA ANTOLATU

Eremitorio gehien-gehienetara erraz irits daiteke. Gainera, ia guztiak irekita egon ohi dira edo kanpotik ikus daitezke. Salbuespen gutxi batzuk bakarrik daude, Valverdeko Santa Maria eliza edo Justo eta Pastor Santuen Eliza kasu.

INFORMAZIOA

Harkaitzetako Arkitekturaren Interpretazio Zentroa Valverdeko Santa Maria elizaren ondoan dago.

Zanzibar

Kitesurf egiteko paradisu tropikala





Zanzibar paradisu tropikala da aspaldidanik turista askorentzat. Harea zuriko hondartza amaigabeak, ur gardenak, tenperatura atseginak, argitasuna... Urpekarien topaleku berezia ere izan da, baina azken urteotan kitesurfa egiten dutenak erakarri ditu bereziki, haize boladen eraginez. Paje, adibidez, ezagun bihurtu da kitesurflarien artean.



Sumy SADURNY (AFP)





Tanzaniako ekialdeko kostaldean, Indiako Ozeanoan, hantxe dago Zanzibar artxipelagoa, Zanzibar, Pemba eta beste irla batzuez osatutako uhartedia. Zanzibar uharteak 90 kilometroko luzera eta 30 kilometroko zabalera du (eremu zabalenean), eta mundu mailan oso ezaguna da harea zuriko eta ur gardeneko hondartza ikusgarriak eskaintzen dizkielako turistei. .

Hala ere, azken urteotan kitesurflarien topagune bihurtu da, haize boladek bultzatuta bertaratzen direnen paradisu tropikala. Hamaika dira, bai, irlako hondartza liluragarriak, baina bada bat, kostaldeko hego-ekialdean, kitesurfalariak bereziki erakartzen dituen: Paje. Arrantzaleen herri txiki eta lasaia da Paje. Haizeak etengabe astintzen du itsasertza eta, gainera, tenperatura tropikal ezin hobea da: ura 27 gradu inguruko tenperaturan egon ohi da.

Abendutik martxora eta uztailetik irailera berteko hilabeteak dira egokienak uhartean kitesurf egiteko, haizearen presentzia bermatuta

omen dagoelako. Hala ere, kontuan izan behar da haizeteen ezaugarriak aldatu egiten direla urtean zehar. Urtaro bakoitzak ezaugarri bereziak ditu. Ekainetik irailera bitartean gerturatzen direnek “kusini” izenarekin ezagutzen den cross-shore haizeak bultzatuta egingo dute hegan. 15 eta 20 korapilo arteko indarrarekin jotzen du, hegoaldetik. Aldiz, abendutik otsailera arte, “kaskazi” haizea da nagusi, indar berdina baina norabide aldatokorra duena.

Zalantzarik gabe, Pajek –Afrika Ekialdeko hondartzarik ederrenetako bat izateagatik ezaguna– hasiberriak zein beteranoak erakartzen ditu, batez ere, bere ur zapalari eta sakonera gutxiko aintzirei esker. Horrez gain, beste ur kirol batzuk egiteko ere leku aproposa da, hala nola urpekaritza, paddelboarda, snorkela, windsurfa eta baita arrantza ere.

Gainera, hondartzan bertan maila guztietako kitesurf ikastaroak eskaintzen dituzten klubak daude. Eta, seguruenik, bertako irakasleak dira gidari fidagarrienak informazio zuzena jasotzeko haizearen norabidearen inguruan, edo adituen^{ei} bakarrik gomendatzen zaizkien arrezifeei buruzkoak.



Sadhuak, Indiako gizon santuak







**Aurretik izandako jabetza guztiei
uko egin eta austeritate zein
penitentziaren bidea hartuta, biluzik
edo tunika hori soil bat jantzita,
Indiako kaleetan hainbat eta hainbat
monje hindu ikus ditzakegu euren
jardunean, askotan yoga eta errituak
praktikatzen. Sadhuak dira.**

Testua **Fernando ROJO**

Argazkiak **Gonzalo SAENZ DE SANTA MARÍA eta Fernando ROJO**

Ganges ibaiaren inguruak eta Varanasi hiri sakratua dira toki egokienak sadhu-ak topatzeko. Aszeta hinduak dira, egun batean, erosotasun guztiak laga eta alderrai ibiltzearen hautua egiten dutenak, aszetismoaren bidea jarraituz, tenpluz tenplu eta hiri sakratutik hiri sakratura. Gaur egun, hinduismoak 1.000 milioi jarraitzaile ditu, gehientsuenak Indian. Sinesmen sistema konplexua da guretzat, ulergaitza guztiz. Hinduek beraiek erlijioa baino bizitzeko modu bat bezala ikusten dute. Horien artean askok erabakitzen dute sadhu bihurtzea, bizitzako azken etapa betetzeko.

Hindu baten bizitzak lau “asrama” edo etapa ditu: ikaslearena, etxeko bu-ruarena, ermitauarena eta, azkenik, “sannyasin” edo “uko egiten duena-rena”. Azken etapa horretan, ukapen bidea hartuta, sadhu bilakatzen dira hindu asko; alegia, bizimodu eroso eta luxuak baztertu, eta etxetik alde eginez monje aszeta bilakatzea erabakitzen dute. Familia eta jabetza guz- tiak atzean utzita, aurrerantzean ibilian arituko dira Indian zehar zeregin berrietan: yoga praktikatzen, errituak betetzen eta veda idatzi sakratuetan sakontzen. Beti azken helburu bat izango dute, goi argiztapena lortzea,



Naga sadhuak biluzik edo ia biluzik ibiltzeaz gain, gorputza vibhuti errauts sakratuz betetzen dute eta jatorri jainkotiarreko rudrashka haziz egindako kapela eta lepokoak erabiltzen dituzte.

“moksha” edo nirvana bezala ezagutzen duguna. Bide hori jarraituz, heriotzaren eta berraragiztatzearen ziklotik libre geldituko dira.

BILUZIK BIZI DIRENAK Sadhuak sekta askotan banatzen dira. Bakoitza bere ezaugarriekin. Sadhu batzuk mendian edo basoan bizi dira, bakar-tuta, eurek egindako etxoletan edo ficus pikondoen azpian; badira errausketa eremuen inguruetan bizi direnak ere, hau da, hinduek hildako senideak erretzen dituzten tokietan; baita ibilian bizi direnak ere, toki sakratutik toki sakratura erromes. Gutxi batzuk ashram izeneko aterpetxe edo monasterioen antzeko tokietan bizi dira. Dena den, sekta berezi eta kuriosoena naga sadhu-ena da, larrugorritan bizi baitira, arropa eramateari uko eginez. Horregatik, miretsiak dira gainontzeko hindu arrunten artean.

Biluzik bizitzea erabakitzen dutenek arropa bera ere ondasun bezala ikusten dute, jantziak izatea materialista dela pentsatzen dute, eta Jainkoarengandik hurbilago sentitzen dira larru-hutsik. Milaka dira Indian, arras ezagunak. Eta gurtuak. Eskuetan trishula edo “hiruhortzekoa” eta danbor-txo bat eramaten dituzte (Shiva jainkoaren sinboloak), gorputz osoa vib-



huti edo “errauts sakratuz” lohitzen dute (askotan hildakoak erretzen dituzten errauste eremuetatik hartutakoa), eta kopetan tilaka markak egiten dituzte: hiru marra horizontal, Shiva jainko suntsitzailearen jarraitzaileak baitira.

Berez, naga sadhuak aurkitzea ez da lan erraza. Diotenez, Himalaia mendien magaletan bizi omen dira, zibilizaziotik urrun eta naturatik hurren. Naga sadhuak ikusteko aukera ona hiru urtez behin ospatzen den Kumbh Mela jaialdi erraldoia da. Tokiz txandakatzen doan zeremonia horretan 150 milioi hindu elkartzera iristen dira hilabeteko artean eta naga sadhu guztiak bertaratzen dira jaialdira bainu sakratuak hartzera. Dudarik gabe, aparteko festibala da, Indian dauden milaka jaialdien artean ikusgarriena, seguru aski.

Ospakizunean India osotik heldutako hinduak “akhara” izeneko kanpalekuetan antolatzen dira, sekta edo eskola hinduetan banatuta. Juna akhara kanpalekuan biltzen dira naga sadhuak. Bertan egoten dira pizten duten su sakratu epelaren inguruan eserita, egun osoz. Chilam pipetatik kalamua erretzen pasatzen dute denbora, Shiva jainkoarekin duten komuni-



Sadhu guztiak hamabi urtetik behin elkartzen dira Kumbh Mela jaialdi erraldoian, munduan ospatzen den zeremonia erlijiosorik handiena. Zeremonia horretan, Ganges eta Yamuna ibaiak elkartzen diren tokian bainu sakratua hartzen dute. Irudian, sektako buruak goizean goiz bainua hartzeko prest.

kazioa hobetzeko; baita vedak irakurtzen, mantrak erreztatzen, beren buruak zigortzeko sakrifizioak egiten edo yoga egiten.

AMAR BHARATI, 48 URTE BESOA ALTXATUTA Heriotzaren eta bererraragiztatzearen ziklotik askatzea lortzeko, Ganges ibaira hurbiltzeaz gain, sadhuk gorputzarekin lotutako muturreko sakrifizio pertsonalak egiten dituzte. Batzuek urte luzez hitzik ez egitea erabakitzen dute, edo hanka baten gainean bizitzea (lo egitea barne) edo sexu eszitazioa saihesteko zakileko muskulua haustea... Denen artean ezagunenak, ordea, besoa betiko altxatzen dutenak dira. Horien artean dago Amar Bharati.

Amar Bharatik bizitza familiar eroso bizi izan zuen emaztearekin eta hiru seme-alabekin 1970era arte. Egun batetik bestera, bizitzan inflexio puntu batera heldu zela ulertuta, banku batean zuen lanpostua utzi eta sadhu izateko erabakia hartu zuen, bere bizitza Shiva jainkoari eskaini ahal izateko. Handik hiru urtera, berriz, monje aszeta arrunta zenak sakrifizio bat erantsi zion bere erabakiari eta besoa altxatu zuen betiko, berrirori inoiz ez jaisteko. Diotenez, gerraren aurkako eta bake unibertsalaren aldeko keinu moduan hartu zuen erabakia. Kontua zera da: ia mende erdi igarota, 48 urte zehatz-mehatz, Amar Bharatik besoa altxatuta jarraitzen duela; dagoeneko, noski, beti zerura begira duen besoa guztiz atrofiatuta du, hezur-azal huts bihurtuta. Eskuko hatzak ere guztiz itsatsita ditu.

Amar Bharatik kontatzen duenez, hasieran oso mingarria izaten zen beretzat beti besoa altxatuta egotea, baina, gerora, behin muskulu guztiak galdu eta besoa atrofiatzean, mina desagertu zitzaion; are, egun jada ezin du besoa jaitsi. Jarraitzaile asko ditu Indian, eta jainko bat balitz bezala gurtzen dute. Gerora, beste sadhu batzuek bere bidea jarraitu dute eta besoa altxatuta bizi dira Bharati imitatuz. Chilam pipatik kalamua erretzen pasatzen du denbora, trishula beti altzoan duela. Kumbh Mela jaialdi erraldoian erraza da berarekin topo egitea naga sadhuen kanpalekuan.

AGHORIAK: MUTURREKO SEKTA NEKRO-KANIBALA Sadhu guztiek irudi zelebrea badute ere, denen artean badira batzuk itxuragatik errazago ezagutu daitezkeenak: aghoriak. Aghori hitzak “ez-beldurgarria” esan nahi duen arren, irudi tetrikoa dute sekta honetako kideek, izan ere, hildakoen arropak jantzi eta giza-hezurrez osatutako koilareak eramaten dituzte zintzilik. Horrez gain, ezagunak dira nekrofagia eta kanibalismoa praktikatzan dutelako.

Varanasi inguruetan bizi dira, bertan baitute tenplua, eta Ganges ibaira botatzen diren erre gabeko hilotzen haragia jaten dute. Hori gutxi ez eta eskuetan giza buru-hezur edo kapala bat eramaten dute, guztia delako purua eta ederra, euren ustez. Kaskezur hori kaiku moduan erabiltzen dute ura eta edari alholdunak edateko, aghoriak baitira alkohola edaten duen sadhu bakarrak. Edo bakarrenetakoak.

Antzinako –eta gaur egun jada desagertua den– Indiako beste sekta batean dute jatorria: kapalika edo “garezur-gizonak”. Giza sakrifizioak egiten omen zituzten antzinatuan. Giza haragia jateagatik eta praktikatzan dituzten beste erritu batzuegatik aghoriak begi txarrez ikusten dituzte gainontzeko hinduek, baina badituzte jarraitzaile gutxi batzuk. Duten ospe txarraren adierazle da Kumbh Mela bezalako jaialdietan sarrera debekatuta dutela. Aghoriek hildako materia egoeraz aldatzen dela uste dute, ez dela desagertzen, eta, beraz, dena dela sakratua eta ezer ez profanoa; horregatik jaten dute hildakoen haragia.

Shiva jainkoaren abatar edo berraragiztatze beldurgarria den Shiva Bhairava agermenaren jarraitzaile dira eta hamabi urteko prestakuntza behar dute guru baten eskuetan aghor kultua aurrera eraman ahal izateko. Diotenez, sexu praktikak saihesten dituzte energia espirituala indartu asmoz; aldiz, era berean, bada hildakoei sexua praktikatu izan duenik ere. Baita bere pisa edan eta kaka jatera iritsi denik ere. Batzuek hori diote, behintzat. Varanasin bertan aghoriak aurkitzeko, txalupari batekin adostu eta Ganges ibaia zeharkatzea da biderik egokiena. Hori bai, ez dira oso irekiak kanpotarrek.

Sadhuen fenomeno kurioso eta harrigarria, Indian ez ezik, Nepalen ere ikus daiteke. Hala eta guztiz ere, biak ala biak herrialde turistikoak izanik, asko dira sadhu janzkerak hartuta (aghoriak eta ez aghoriak) atzerriarren diruaren bila ibiltzen direnak. Hori dela eta, atzerritzarrontzat askotan zaila da bereiztea nor den benetako sadhua eta nor zentimo batzuk lortzeko helburuarekin gurekin argazkiak ateratzeko prest den “postaleko sadhua”.





An aerial photograph of Victoria Falls, showing the wide expanse of the waterfall cascading over a rocky edge. A suspension bridge is visible on the left side of the frame, spanning a portion of the river. The surrounding landscape is lush with green and yellowing trees, suggesting a savanna or woodland environment. The sky is hazy, and the overall scene is captured in a cinematic style with warm lighting.

Mugarik gabe, Afrika hegoaldean

Testua **Urtzi URRUTIKOETXEA** Argazkiak U.U. eta Getty

Munduko eskualderik zirrargarrienetako batean egindako bidaia da hau, Afrikako hegoaldeko herrialdeetan barna.

Milaka urteko historia duela oso gutxiko gertaera historikoeekin batzen da; hiri moderno eta handiak kontinenteko parke nazionaletako fauna ikusgarrienetik hurbil daude, eta bertako herriak eta kulturak ezagutzea esperientzia izugarri aberasgarria da.



Afrikaren hegoaldeko herrialdeetan askotariko irudiak aurki ditzake bisitariak, hiri handi eta modernoetatik oso hurbil baitaude zenbait parke nazional. Bidaia-irakurketa, fauna eta paisaia ikusgarriak zein herri eta kultura aberatsak ezagutu ahal izango ditu.

Ez da sasoirik egokiena, beharbada, ados. Baina izango da, orain ez bada, geroago, eta Hegoafrika eta inguruko herrialdeetara bidaiatzeko aitzakiak, ohi bezala, gutxi izango dira: kontinenteko azpiegitura antolatuenetakoa dauka herrialdeak eta inguruko estatuetara ere erraz bidaiatu daiteke; alogerako autoa Johannesburgon hartu eta Botswanan uzteko aukera izan dugu. Eta bidean, kontinentearen hegoaldeko bazterrik berezienak bisitatu ditugu.

Herrialdeko hiririk handiena da Johannesburgo eta bertako historiako unerik garrantzitsuenetakoen lekuko izan da. Beraz, ezinbestean bisitatu beharreko hainbat leku ditu, Apartheidaren Museotik hasi eta Sowetoraino. Aurretik ere bisitatutako hiria izanik, ordea, bideari ekin diogu, iparralderantz, Botswanaraino doan errepidetik.

Bost orduko bidea da mugara. Ia bertan dago Gaborone hiriburua. Baina aurretik badago non geratu eta zer ikusi: Pretorian barna doan errepedeiri jarraituz, esaterako, Pilanesberg parke nazional ederrerraino iritsi gara. Gune txikia da, Kruger eta beste parke batzuen handitasunik gabea, baina hurbilago egotea dauka alde. Sartu eta gutxira jirafa baten sama luzea agertu da sami artean, segidan errinozero eder bi, eta handik gutxira basozainak bideetako bat itxita dagoela esan digu: «Elefante talde handia







**Kalahariko
basamortuak
ezkutatzen dituen
bizibideei esker,
sanek aurrera
irtetea lortu zuten,
baina ohiko
bizimodua uzteko
presioak dituzte
oraindik ere.**

dago erdian; hobe beste nonbaitetik jotzea». Afrika hegoaldeko parke nazionalen beste abantaila da, Kenya, Tanzania eta antzekoen aldean, norbere kontura antolatzea oso erraza dela: alokatutako autoarekin erraz sartu eta gidatu daiteke, eta ez dago zertan txango garestirik hartu Afrikako faunaz gozatzeko. Hori bai, noizean behin, merezi du txangoak ere, bertako adituek inork baino hobeto baitakite zein basapiztia non dabilen.

Pretoriatik joan beharrean barnealdeko bide sigi-sagatsuak hartuz gero, Lesedi parkean geldialdia egiteko aukera ere badago. Umeek bereziki maite duten lekua da, Afrika hegoaldeko herrien ohiturak, jantziak eta dantzak ezagutzeko. Horrez gain, bertan afaldu eta lotan geratzea hautatuz gero, oso esperientzia ederra izango du bisitariak. Gero, Pilanesbergen barna Botswanako mugaraino garamatza bideak. Mugako tramiteak errazak izan ohi dira, paperak behar bezala izanez gero (autoa alokatzerakoan jakinarazi behar da egin asmo den ibilbidea, eta haiek antolatu ohi dituzte inguruko herrialdeetan gidatzeko paperak).

KALAHARIKO JAKITURIA Gaborone utzi eta berehala, eremu zabala dator, eta erdian, asfalto marra luzea ehunka kilometroan Namibiaraino. Erdian, Kalahariko basamortua, 700 kilometro baino gehiagoan, ia autorik gurutzatu gabe, noizean behin errepidea gurutzatzen duen ganadu askeari adi. Ghanzi hiriraino joan gara, han errepide nagusia utzita Dqae Qare komunitateraino iristeko. Behinola “bushmen” edo “boskimano” deituriko eta egun “san” deitu ohi zaion herriak (hala esaten baitiote euren buruari) antolatutako ekoturismo egitasmo interesgarria dago bertan.

Afrika hegoaldean bizi den herririk berezienetakoa da, eta iparralderago-tik iritsitako gizataldeek sarritan baztertu dute historian. Kalahariko basamortuak ezkutatzen dituen bizibideei esker, sanek aurrera irtetea lortu zuten, baina ohiko bizimodua uzteko presioak dituzte oraindik ere. Ostatu hartuta eta inguruak geure kabuz miatuta, afalosteko ipuin kontaketa gonbidatu gaituzte. Itzela da Kalahariko gau hotzetan sutondoan istoriook entzutea. Xgaiga du izena buruzagiak, eta itzultzaileak berba egin baino lehen, haren hizkuntzaren klik bereziei erreparatu diet, gerora, xhosa herriak ere hartu duen soinua. 28 “klik” desberdin ditu san hizkuntzak.

Biharamunean, goizean goiz abiatu gara oinez. San herriko kideek antolatutako ekimena izateaz gain, komunitateak trebatutako lagunek gidatzen dute txangoa. Gehienon begiradan basamortua eta sasiak baino ageri ez diren lekuetan bizimodua zelan atera ezagutzeko ibilaldi ederra da, jirafa, hiena edo zebra lorratzak nabarmenduz, sustrai bakoitza nola zukutu –eta, beraz, biziraun– litekeen azalduz, edo basapiztien gorotzen garrantzia ere ulertaraziz.

Namibiako muga hurbil dago, Windhoek hiriburura iristeko beste hiru orduko bidea izan arren aurretik. Afrikan sortutako azken estatuetakoa bat da Namibia, baina ez Europako metropolitik askatuta, Hegoafrikatik independentzia lortu zuelako baizik, 1990ean, apartheidaren amaieran. Hiriburuan bertan, Afrikatik zein Kubatik okupazioaren eta erregimen arrazistaren aurka borrokatu zirenen omenez izendatutako kaleak bisitatu ditugu, iparralderantz, Etosha parke nazioalerantz, abiatu baino lehen.

Aurretik, Namibia iparraldean eta Angola hegoaldean bizi den himba herri berezia zertxobait hobeto ezagutzeko aukera izan dugu. Botswanaraino hedatzen den herero herriaren ahaide dira, eta emakumeen bitxiak, lokatzez apaindutako ileak eta eguzkitik babesteko ematen duten okre gorriak mundu osoan famatu ditu, eta turismo antropologikoa ere erakarri du, bere dilema etiko guztiekin. Himba gehienak, edozelan ere, errepide gehienetatik urrun diren Kunene eskualdean bizi dira.

ZAMBEZI-REN HARROTASUNA Etosha, Afrika hego-mendebaldeko parke nazionalik ikusgarrienetakoa da. Arratsaldean iritsi gara kanpamentura, eta lehen txangoa egin gura izan dugu, ilunabarrean dabiltzan piztiak ikusteko. Gatzaga erraldoi baten inguruan eratutako lekua izanik, ura metatzen den lekuetan oso fauna aberatsa biltzen da: elefanteak, jirafak, zebrak, bufaloak, ñuak, antilope arruntak eta kudu handi eta harroak... felidoak uzkurrago dabilta, noski, ehizarako behar bezala ezkutatuta. Eguzkia gorri-gorri eta handi gordetzear dela, parketik irteetan, gepardoa ikusi dugu urrunean, harrapakina hankapean, muturra gorri, eta kumeak ere oturuntzaz gozatzen.

Hotz egiten du gauez, basamortuan ohi duenez; are gehiago, urtaroak ipar hemisferiotik alderantzikatuta direla jakinik. Kanpamentuan sua piztu dute, haren inguruan bildu eta kantuan aritzeko. Barruan, independentziari buruzko eta apartheidaren aurkako afixa zaharrak dituzte. Biharamunean egun handia datorrela amesteko lokartu gara. Fresko eta eguzkitsu dator eguna, izan ere, gatzagaren alde batetik bestera ibiltzeko, une bakoitzak dakarren ikuskizunak liluratuta.

Kolonialismoaren apetek erregelaz marraztu zuten eskualde batera garamatza hurrena bideak. Capriviko Zerrenda da, Namibiaren mugen barruan dagoen 400 kilometroko lur zati estua, eta erabat ezberdina orain arteko eremu mortutik. Angola beti hurbil eta Botswana ere kilometro gutxira, Okavangoren deltaraino doan paisaia tropikalak parke nazionalen eta herrixka xumeen artetik garamatza mugaraino.

CHOBeko PARKE NAZIONALA Sartu-irtena baino ez da Botswanan, Kasane atseginean geldialdia egin, alogerako autoa utzi eta Chobeko parke nazionalaz gozatzeko. Txoko honetan bost herrialdek bat egiten dute, izan ere; eta bidaiaren amaierak aldameneko Zambia eta Zimbabweraino garamatza. Iaz arte txalupa hartuta igaro beharra zegoen beste aldera, dozenaka lagun eta ibilgailurekin batera, baina bi herrialdeak lotzen dituen zubia eraikita eta zabalik dago ordutik.

Livingstone du izena Zambiako hiri nagusiak bazterrotan, eta mendebaldar guztiok bertako ur-jauziak Victoria Falls edo Victoria ur-jauziak izenez ezagutzen baditugu ere, Mosi-oa-Tunya, hots, “burrumba egiten duen kea” da lozi hizkuntzan. Berehala ikusi dugu zergatik, trenbidearen parean doan errepidean bidea egin eta Zimbabwe mugaraino iritsita. Zambezi ibaia zabaldu eta indar biziz amiltzen da 100 metro baino gehiagoko altueran eta 1,7 kilometroko zabaleran. Zambiatik gozatu dugu egun batean, Botswanako aldetik hurrengoan, eta ibilbide ahaztezin honi eman dakiokeen amaierarik bikainena iruditu zaigu.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA HELDU

Hego Afrika da eskualdeko atari nagusia, Johannesburgeko aireportura esaterako hegaldi ugari daude Europako hirietatik; Euskal Herritik horietako batean eskala bakarra eginda irits liteke.

MUGITZEKO

Autoa alokatzeko herrialde merkea da Hego Afrika, eta parke nazionaletan ibiltzeko erraztasun handia dago. Inguruko herrialdeetara joateko, aurretiaz abisatu behar da, paperak prestatu ditzaten. Oso errepide onak eta Afrikako azpiegitura turistiko zabalenetakoa dago eskualdean. Zenbait parke nazionaletara iristeko, hori bai, 4x4 autoak behar dira; ibilbidea diseinatzerakoan garrantzitsua da nondik ibiliko garen aurreikustea.

AGIRIAK

Covidarekin lotuta egon litezkeen murrizketez haratago, txango honetako herrialdeetara lasai asko joan liteke pasaporte hutsez edo mugan bertan hartuta bisatua

BALJERRI

Mendebaldeko mugalde ezezaguna

Testua eta Argazkiak **Andoni URBISTONDO**

Ordunte mendikateak banatzen ditu Euskal Herria eta Espainia, Karrantza haranean; Bizkaia eta Gaztela eta Kantabria arteko muga da. Urrun dagoen txokoa da, baita Bilbotik bertatik ere, baina Erronkari edota Zuberoako bortuak bezalaxe. Leku lasaia da, belartsua, ezezaguna, bakartia. Otsoak ere lasai bizi izan ziren eskualde ederra.







Enkarterriko haranak Euskal Herriko mendebaldean daude. Eskualde handia da Enkarterri, hedaduraz Gipuzkoako laurdena ia, baina ez da jende asko bizi, 32.000 lagun baino ez, eta kopuru horretako lautik hiru Balmaseda, Zalla eta Gueñes herrietan, eskualdeko hiru populatuenak. Lursailez aberatsak dira Enkarterriko haranak, trafiko gutxiko errepide interesgarritz josita daude, eta oso inguru menditsua da. Hegoaldeko muga Ordunte mendikateak marrazten du; Balmaseda gainean jaikitzen den Kolutza ezagunean hasten da eta Burgos eta Kantabriako mugatik 200 metro eskasera dagoen Zalama mendian bukatu.

Zalama ez da gailur alpinoa, belartsua baizik, Ordunteko mendikate ia guztia bezala. Azienda aberatseko lurak dira hauek: behiak, zaldiak, ardiak, gizaldiz gizaldi ibili dira bazkan Ordunteko belazeetan. Zalama, baina, Bizkaiko hirugarren mendirik garaiena da, 1.341 metrorekin (1.335 beste neurketa batzuen arabera). Erabat Bizkaiko lurretan dauden mendiak hartuta, bigarrena, Gorbeiak Bizkaia eta Araba partekatzen baititu. Zalama Euskal Herriko mendebaldeko mugalde urrunean dago, eta Euskal Herritik abiatuta haraino iristea ez da samurra. Lanzas Agudas Karrantza haraneko auzotik igo daiteke, baina joan-etorria 25 kilometrokoa da. Egun osoko txangoa, beraz.



Erreportajea irekitzen, Breña lepoa, eta, ondoko orrian, Baljerri, bertatik ikusita. Aurreko orrian, mendizale bat eta bere zakurra, Baljerri gailurrean, eta, behean, Lanzas Agudas auzoa, Karrantza haranean. Ondoko orrian, Baljerri pagadiko pago sendoak. Bizkaiko pagadi handiena da Baljerri. Orri honetan, Bilbo Handia elikatzen duen Ordunte urmaela eta Baljerri gailurreko bistak, Kantaauriar mendikaterantz. Castro Valnera ikusten da, zuri, baita Pico de la Miel eta Picon Blanco ere.

Askoz gertuago dago Baljerri, Ordunteko bihotzean. 1.106 metroko gailurra da, baina ordue eta erdi pasatxoan irits daiteke Lanzas Agudas auzotik. Karrantza harana berezia da gauza askogatik, baina mendien izendegian ere bai. Baljerri “g” hizkiarekin idazten dute askok, baina bertakoek “j” baltz bezala ahoskatzen dute. Herritar bati arrazoiak galdetu, eta eztabai-darako tarterik uzten ez duen erantzuna bota zigun: «Hemen horrela esaten diogu». Are, Euskaltzaindiak berak ere, Baljerri izena hobetsi du.

Igoera erraza da, 700 metroko desnibela Lanzas Agudas auzotik. Herrian bada Ordunte mendikateko mapa bat, handik bertatik abia daiteke txangoa, edo beste 500 metro egin aurrera pista batean. “Baljerri pagadia” jartzten duen seinalearen ondoan utz daiteke autoa, oinez hasi aurretik. Lanzas Agudas izenaren jatorrian bertan lizar geziak egiten zituztela omen dago. Pagadira iristeko aldapa handi bat igo behar da, pista batetik. Lanzas Agudas auzoa oso behean geratzen da bazterretan lehen pagoak agertzen direnerako, 600 bat metroko langa gaintitu ostean. Agertzen direnean, baina, argazki ikusgarria agertuko zaigu begi aurrean. Pago handiak dira, 30 metro luze zenbaitzuk, eta halako magia edo beldur sentsazioa sortzen da, norbaitek zainduko bagintu bezala. Baljerri Bizkaiko pagadi handiena da, eta bisitatxoa merezi du.

ORDUNTE MENDIKATEAN, URA BOR-BOR Ur jauzi bat baino 50 metro lehenago eskuinera egin behar da, mendi bide batean barrena, gure eskumara. Seinaleztatuta dago. Negua lehor joan da Euskal Herrian, baina Ordunte mendikateko barrunbeetan ura bor-bor ateratzen da xendara, mendia hauek urtsuak diren seinale. Borda erdi eraitsi bat uzten da ezkerrean, eta, hura inguratuta, Baljerri mendiraino doan xenda igotzen da, ordu erdiz. Erraza, sigi-sagak egiten doan bide belartsua. Breña lepora iristen da azkar, 935 metrora.

Hango nekazari baten ahotan “La Colladita” esaten diote lepoari. Zaldiak eta moxalak omen ditu mendian, eta haien bila igo da quad batean. Lepo-



tik bista ederra da. Baljerri tente agertuko zaigu gure ekialdera, eta 20 minutu eskaseko tartean gailurrera iristeko moduan izango gara. Mena bailara ere bere osotasunean agertuko zaigu. Burgosko lur eremua da Mena bailara, baina baita Bilbo Handiko hainbat bizkaitarren bigarren bizitokia ere, Burgosko Espinosa de los Monteros edo Villarcayo herriak bezala.

BISTA EDERRAK BALJERRITIK Batere zailtasunik gabeko belar bidean barrena, eta monumentu megalitikoak gurutzatuz iritsiko gara Baljerri gainera. Mendebaldeko mugaldean, hego-mendebaldeko haizea gogor dabil. Paraje bakartia da oso. Koltza ikusten da urrunean, eta hegora Ordunte urmaela. Abeltzainak esana, naturak sortutakoa dela, eta urak Bilbo Handia elikatzen duela. Bete samar dago urmaela, lehortea agerikoa izanda ere. Hegora Mena bailara eta Montes de Peña mendikatea ikusten dira. Kantauriko isurialdeko Burgosko bailara bakarra da Mena; zehazki, Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeak banatzen dituen mendikatea da Peña, La Magdalena izenarekin ere ezagutua.

Mendebaldera Zalama agertzen da, eta berau inguratzen duten mendi pista festa. Elur arrasto batzuk geratzen dira Zalaman, Kantauriar mendikateko gailur garaiak oso gertu dituen seinale. Oso gertu baititu. Baljerri nahiko ondo ikusten da Picon Blanco, txirrindularitzagatik ezagun egin den gailurra, baita Pico de la Miel eta Castro Valnera ezagunak ere. Castro Valnerak 1.717 metro ditu, eta elur dezente dauka gailur aldean. Hain mendi garaia bilatzeko Euskal Herriko beste muturreraino egin behar da ia-ia, Orhi mendiraino.

Lanzas Agudas auzora bueltan, bertako herritar bat ikusi dugu traktoreko gurdian mendiko egur lehorra jaisten, negua bukatu ez den ziur baita. Hark kontatu dizkigu Baljerriko pagadiko sekretutxo batzuk, neguaren gorabeherak, eta behinola Karrantza harana eta Enkarterri otso lurrak izan zirela. Bakarren bat ibiliko dela gugandik oso urrun ez, akaso. Gure burutazioetan, otsoen peskizan, etxerako bidea hartu dugu, badaezpada.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Karrantza harana Bizkaiko mendebaldean dago, Enkarterri eskualdean. Eskualde handia da hedaduraz, eta nahiko bakartua biztanleriaz. Karrantza haranak 2.700 biztanle ditu, baina 47 auzo! Eskualdeak Burgos eta Kantabria probintziekin egiten du muga.

NOLA IRITSI

Bilbotik hainbat modu daude bertaratzeko. Muskiz eta Ortuellan barrena, edota Balmasedara joanda. Handik 27 kilometro daude Karrantza haranera, La Escrita gainetik barrena. Karrantza haraneko Concha herrixkan Lanzas Agudas auzoraino joan behar da autoz (5 kilometro daude).

EZAUGARRIAK

Azienda lurrak dira Karrantza haranekoak. Abeltzain eskualdea. Larre aberatsak daude nonahi, eta mendi garaiak ere belartsuak dira, Ranero mendigune harritsua izan ezik. Ordunte mendikatea da hegoaldeko muga, bere baitan Bizkaiko hirugarren mendirik garaiena gordetzen duena: Zalama, 1.341 metrorekin.





“ARDITIK ARDIRA”

Herriko historia ezagutzeko jolas erraldoia

Testua eta Argazkiak **Eli TXAPARTEGI**



Aiako Dima plazan dago kokatuta “Arditik ardira, emaiozu bira” jolasa. 63 lauki erraldoik osatzen dute taula, 836 baldosatan banatuta. Lauki bakoitzak marrazki handi bat du, herriaren historiari lotutako pertsonaiak, ofizioak, lekuak eta gertaerak irudikatzen dituzten laukiak. Ez dago fitxarik, ezta dadorik ere, eta antzarak ardi bilakatu dira. Aiako historia idatzi duten ardi bereziak dira.

Aiako historia idatzita gelditu da herriko dema-plazan. 836 baldosatan. Marrazki handiz osatutako 63 lauki erraldoiren bidez ehundu dute iragana eta oraina. Pertsonak, ofizioak, lekuak, gertaerak... Fitxarik eta datorik gabeko “Arditik ardira, emaiizu bira” jolasa da, antzarak ardi bihurtuta.

Jolas bat. 63 laukiz osatutako zirkuitua. Ez da Antzara Jolasa, “Arditik ardira” baizik. Antzarak ardi bilakatu dira eta zubiak, berriz, errota. Hori bai, arauak berdinak dira eta helmugara lehen iristen denak irabazten du partida. Gainera, ez dago fitxarik, ezta datorik ere. Izan ere, jokalaria dira piezak eta dardoen funtzioa, berriz, erdian kokatutako erruletaren esku dago. Nolanahi ere, aipatu bi jolasen arteko alderik handiena tamaina da, zalantzarik gabe. Baina baita kokapena ere.

Aiako ez da mahai gainean kabitzen eta ezin da etxeko apaletan gorde kartoizko kaxa baten barruan: 13 metroko luzera eta 6 metroko zabalera du eta Aiako dema-plazan kokatuta dago, Castelloko enpresa batek egindako baldosa erraldoiez osatuta.

TAMAINA, KOKAPENA ETA ISTORIOAK Alabaina, tamaina eta kokapena ez dira jolasaren berezitasun bakarrak, lauki bakoitzak istorio propioa biltzen baitu. Lauki bat, istorio bat; 63 lauki, 63 istorio; belaunaldiz belaunaldi herrian ehundutako historia osatzen duten 63 istorio. Hau da, 63 zertzelada historiko, herriko kontaketa kolektibo erabat berezia osatzeko.


Pertsonak, ofizioak, lekuak, gertaerak... Lauki bakoitzak bere protagonista du. Jakina, protagonista bakoitzak data zehatza du, baina erdian kokatutako erruletak erabakiko ditu historiaren erritmoa zein norabidea, iraganaren eta orainaren arteko saltoak bat-batekoak izango direlako, kronologiaren logikari jaramonik egin gabe.

Aiako Ardi Jolasa Laupauso estudioko diseinatzaile Asier Erguin eta Esti Lizarretak eta Eneko Sanz historialariak sortu eta diseinatu zuten 2019an. Herriko ondarea eta historia jaso eta ezagutaraztea zen proiektuaren helburua.

Horretarako, noski, zenbait iturritara jo behar izan zuten jolasaren sortzaileek; batez ere, bitara. Batetik, herriko Udaleko artxiboetan gordetako dokumentuak aztertu zituzten eta, bestetik, herritarren memoriatik jasotako pasadizoak.

ALTZERRIKO HAITZULOAK Lehen laukiak, jolasaren abiapuntuak, 2008. urtean Gizateriaren Ondare izendatu zuten Altxerriko haitzuloa irudikatzen du. Ondoren datoz, besteak beste, amona Juliana (gozokiak banatzen zituen asto gainean Aiara iritsi eta gero), Gabino Alustiza (alkate izan zen Errepublika garaian eta Gerra Zibilean atxilotu eta fusilatu zuten), Fermin Gilisagasti ainguragilea (Herbehereetan espioitza lanak egin ondoren, han ikasitako teknikak Aiako burdinoletan landu zituen); Leon Txiki aizkolari eta apustulari famatua (ezagunago egin zen Kortatu taldeko disko bateko azalean agertu ondoren); Jose Miguel Maiz korrikalaria...

Baldosaz osatutako laukien tamainari esker, marrazki handiak egin ahal izan dira, ondoko paneletan azalpen interesgarriak dituzten irudiak. Izan ere, sortzaileek dioten bezala, «idazten ez dena galdu egiten da. Ardi Jolasean jaso dugun kontaketa hemen jasota dago dagoeneko, betiko. Aiako garai desberdinak islatzen dituen dokumentu handi moduko bat da». Eta dena 836 baldosatan bilduta.



“Tromelin, esklabo ahaztuen uhartea» erakusketa

OTSAILAK 1-URTARRILAK 8 (2023)

“Tromelin, esklabo ahaztuen uhartea” erakusketa ikus-terera Donostiako Euskal Itsas Museora hurbiltzen den bisitariak 1760. urtera egingo du atzera. Zehazki, urte hartan Indiako Ozeanoko irla ezezagun txiki batean hamabost urtez “ahantzuran” utzi zituzten 80 esklabo malgaxeen bizipen latzei jarri die fokua antolatzaileek. Baita pasarte hartan euskal itsasgizonak izan zuten parte hartze zuzenari ere. Izan ere, gertakariaren agertoki nagusia, “Eskifaia” ontzia, Baionako portutik itsasoratu zen,

bertan prestatu ondoren. Itsasgizon gehienak lapur-rrak ziren, baita kapitaina bera ere.

Urte luzez egindako ikerketa arkeologikoaren (2008-2013) emaitza da erakusketa. Irlan bertan aurkitu diren hainbat objektu arkeologiko ikus daitezke, adibidez sukaldean aritzeko ontziak edo edalontzi funtzioa betetzen zuten maskorrak. Eskuz eraikitako etheen maketak eta irudiak ere ikus daitezke erakusketan, baita aztarnategian arkeologoen egindako lana jasotzen duen ikus-entzunezkoa ere.

Erakusketaren harira antolatutako ekitaldi sorta web orrian kontsulta daiteke. Sarrera doakoa da.

* Orrialdeotako agendako informazioa aldatu egin daiteke, osasun krisiak eragindako segurtasun neurri berrien arabera



Korrika “HitzEkin”: Amurrio-Donostia

MARTXOAK 31-APIRILAK 10

“HitzEkin” lelopean abiatuko da Korrika martxoaren 31n Amurriotik eta, 11 egunez Euskal Herria igaro ostean, Donostian amaituko da, apirilaren 10ean.

Aurten, gainera, Korrikaren aplikazioak hainbat berrikuntza dakartza: bilatzaile hobetua eta estaldura arazoak ekiditeko sistema berria, kasu.

Osagarri moduan, ibilbide osoa herrika eta eskualdeka ere badago ikusgai www.korrika.eus webgunean.

Añorgatik sartuko da Korrika Donostia azken egunean. Mezuaren irakurketa eta jai handia 12.30etan hasiko dira Bulebarren.

dFERIA, “Oreka”

MARTXOAK 14-17

Aurtengo dFERIA jaialdiaren gaia “Oreka” izango da. Guztira, 26 ikuskitun eta 40 emanaldi eskainiko ditu Donostiako hainbat agertokitan. Beste behin ere, maila handiko lanak izango dira ikusgai, honako hauek, besteak beste: Marina Oteroren “Fuck Me” ikuskizun probokatzaila; Vero Cendoya Konpainiaren “Bogumer” lan inklusiboa, Burgos New York Nazioarteko Lehiaketan saritutako hainbat pieza, “Burgos New York Dantz” izenburupean; eta Els Joglars-en “¡Que salga Aristófanes!”

Arabako Bertsolari Txapelketa

APIRILAK 1-EKAINAK 11

Arabako Bertsolari Txapelketaren 15. edizioa apirilaren 1ean hasiko da Amurrioren eta finala, berriz, ekainaren 11n izango da Gasteizen. Urtarri-lean zen hastekoa 2022ko txapelketa, baina covid-19aren pandemiaren bilakaeraren ondorioz, hasiera atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek.

Lau fasetan banatuko da lehiaketa: final zortzirekin 30 bertsolarirekin jokatu dir; final laurdenak, hemezortzirekin; finalerdiak, hamabirekin rekin; eta finala, azkenik, seirekin.

ABENTURAZALEEN ISTORIO HUNKIGARRIAK

Munduari bira emateak hamaika istorio harrigarri sor ditzakeela uste duena ez dabil oker. Hori da, behintzat, “Aventureros” liburuak agerian uzten duena.

Duela 500 urte Elkanoren espedizioak munduari bira eman zionetik, asko izan dira bidaiarik luzeenei ekiteko ametsa egia bihurtu duten abenturazaleak. Eta, hain zuzen ere, liburu honek istorio liluragarri horietako batzuk jaso ditu.

Erabilitako garraiobi-deen arabera sailkatuta, liburuak aukera aparta eskaintzen dio irakurleari itsasontziz, trenaz, globoz, autoz, bizikletaz edo oinez bidaiatzeko; eta, bide batez, baita ibilbide onenak ezagutzeko eta etorkizuna irudikatzen ere.

Liburu handia da, argazki, elkarrizketa, infografia eta mapa zabalgarriekin osatutakoa.

Aventureros

AA.VV. Lonely Planet, 2021
306 orrialde. Gaztelania





Oslo

Bikingoak, esploratzaileak, fiordoak eta diseinua

Testua **Ane IPARRAGIRRE** Argazkiak **Getty Images**

Basoz eta aintziraz inguratuta eta ehunka uhartez zipriztindutako fiordo batek babestuta, Oslok egun primeran uztartzen ditu garai bateko bikingo eta esploratzaileen pasadizoak eta titanioz estalitako eraikin modernoak. Iragana eta etorkizuna, eskutik helduta.

Egurrezko galeoi zaharrekin eta esploratzaile ausarten abenturekin gozatzen dutenak erakartzen ditu, bereziki, Oslok. Hori jakina da. Alabaina, ezin da ukatu etorkizuna titanioz diseinatzen dutenek ere gogoko dutela Norvegiako hiriburu erkargarria; batez ere, azken hamarkadetan. Dena den, bisitariei eskaintzen dien aukera hain zabala da, ezen hiriko edozein txoko egokia baita Oslo eza-gutzen hasteko. Beraz, onena norberak gogokoen dituen afizio eta gustuak kontuan hartzea da ibilbidearen abiapuntua egoki aukeratzeko.

Adibidez, zalantzarik gabe, arteaz gozatzen dutenek Munch museo berritua edo Astrup Fearnley arte modernoko museoa aukeratu beharko lukete. Aldiz, esploratzaile eta bikingoen unibertsoa atsegin dutenek honako hiru proposamen hauetako bat hautatu beharko lukete: Kulturhistorisk, Kon-Tiki Museum edo Frammuseet (Fram museoa). Ez dira damutuko, seguru asko.

Itsasbazterreko leku pribilegiatu batetik abiatuko dira Munch aukeratzen dutenak. Edvard Munchek 1940an Osloko hiriari testamentuan utzitako obrak ikusi ahal izango ditu bisitariak museo eraberrituan. 55 metroko altuera du, 13 solairu eta, guztira, 22 erakusketa-areto. Jakina, “Skrik” (“Garrasia”) – zehazki, artelanaren bertsioetako bat– da bertako bildumako “harribitxia”. Nolanahi ere, Oslon leku askotan daude ikusgai Norvegiako artistaren artelanak.

ESPLORATZAILEEN LURRALDEA Norvegiar esploratzaile ausarten bidaia mitikoen berri izan nahi dutenek hainbat abenturatan parte hartzeko parada izango dute. Seguruenik, bete-betean asmatuko dute Vikingskipshuset museora hurbiltzen badira, hamaika “harribitxi” topatuko baitituzte: besteak beste, Oseberg itsasontzia –emakume bikingo baten hilobi sekretua– eta Gokstad, munduan ondoen kontserbatutako bikingo-ontzietako bi. Harritzez egindako hogeit metroko itsasontziak dira, IX. mendekoak. Hogeita hamar arraunlari eta bela handi bat beharrezkoak ziren ontziak bultzatzeko. Eta, dirudienez, hildakoek “beste aldean” beharko luketen guztia omen zegoen bertan.

Bestalde, Kon-Tiki Museet-en, 1947an Thor Heyerdahl esploratzaileak erakitako izen bereko baltsa dago ikusgai. Esploratzailea bost gizonekin itsasoratu zen Tuamotu uharteetan eta 101 egunean 8.000 kilometro egin zituen Perura iritsi arte. Polinesia Hego Amerikatik kolonizatzea posible zela frogatu nahi omen zuen. Museoak Ra II papirozko ontzia ere hartzen du, 1970ean Heyerdahlek Marokotik Barbadosera nabigatzeko erabili zuena, alegia.

Frammuseet-ek Norvegiako esplorazio polarra omendu nahi du, bereziki, poloen esploratzaile norvegiar handi hauek: Fridtjof Nansen, Otto Sverdrup eta Roald Amundsen. Alabaina, bisitarien arreta gehien erakartzen duena, zailantzarik gabe, Fram itsasontzi polar ikusgarria da, 1892an eraikia. Ontzi horretan –kasko erdiesferikoa eta armiarma-sare baten antzera elkarri lotutako habeak dituen– izotzak Nansen harrapatu zuen Siberiako iparraldean, baina esploratzaileak berak nahita eraginez. Korronteek Ipar Polora hurbiltzen ote zituzten jakin nahi omen zuen. Bada Fram inoiz egin den zurezko ontzirik gogorrena dela esaten duenik.

FRAM MUSEOA ETA AMUNDSEN Framen, gainera, Gjoa ere ikus daiteke. Amundsenek Ipar-mendebaldeko Pasabidea zeharkatzea lortu zuen belaontzi honekin, 1903tik 1906ra bitartean iraun zuen bidaian. Artikoan igarotako hiru negu horietan, esploratzaileak esperientzia hartu nahi zuen, gero Hego Poloko lasterketan buru-belarri eta indartsu aritzeko. Bere obsesioa esplorazio polarrak zirenez, bera ere berehala, denborarik galdu gabe, abiatu zen jakin zuenean Robert Pearyk Ipar Polora iritsi zela esaten zuela. Gainera, Scott kapitaina Hego Polorako bidean omen zegoen.

Hala ere, Munch, bikingoak eta esploratzaile norvegiarrak baino askoz gehiago eskaintzen du Oslok. Gainera, bidaia egiteko uda aukeratzen dutenek askoz gehiago gozatuko dute; izan ere, udako egunetan Norvegiako hiriburuko biztanleek kalean igarotzen dituzte egun luzeak, etxetik kanpo, eguzki-argiak horretara gonbidatzen baitu negu luze, hotz eta ilunaren ondoren.





Erreportajea zabaltzen, Vigeland parkea, eskulturaz jositako monolitoa. Orrialdeotan, egurrezko Gol eliza (goian), Aker Brygge auzoko etxe modernoak (ezkerrean) eta Akrobaten Zubia (behean). Eskuineko orrialdean, Holmenkollen eski-tranpolina.



Osloko ibilbide batek gaur egun izan beharko lituzkeen geltokien artean, besteak beste, Opera Antzoki berria azpimarra daiteke. Bjørvikako ontziralekua-
ren aurrean kokatutako eraikin abangoardista da, hiriko itsas fatxadaren ikur
bihurtu dena eta 2009an Mies van der Rohe arkitektura sari prestigiotsua es-
kuratu zuena.

AKER BRYGGE, KAI HUTSA BAINO ASKOZ GEHIAGO Halaber, Aker
Brygge kai jendetsu, zaratatsu eta alaiaren bisita jaso beharko luke, derrigo-
rrez, Norvegiako hiriburuko edozein ibilbidek. Museo, arte-galeria eta terraza
abegitsuak dituzten jatetxez betetako portu-gunea da, non eskandinaviar pla-
terik eskusiboenak eskaintzen diren; besteak beste, elur-oreina, izokina, ba-
kailaoa eta oreina erabiliz egindakoak. Gune horretan bertan abiatzen dira
ferryak fiordoetan barrena nabigatzeko. Eta bertan da, gainera, Bakearen
Nobel Sariaren Zentroa.

Azkenik, hiriari agur esateko hainbat aukera daude: bidaiaria lasai ibil daiteke
pasieran Karl Johans Gate etorbide luzean; hau da, hiriaren bihotza zeharka-
tzen duen arteria nagusia; Bygdøy-ra hurbildu ahal izango da Bikingoen
Itsasontzien Museoko harribitxien artean gozatzeko; Erdi Aroko Akershus
gotorlekua bisita dezake edo Old Aker zurezko eliza, hiriko zaharrena (XI.
mendekoa). Dena dela, bisitari askok Vigeland parkea aukeratzen dute azken
egunerako. Eskulturaz jositako monolitoa da, 1907 eta 1942. urte artean Gus-
tav Vigeland artista norvegiarrak sortua, Osloko Udalaren enkarguz.

Hori bai, diseinu eta arkitektura zaleek ezinbesteko hitzordua dute DoGo-n;
diseinatzaile norvegiarren azken lanak erakusten dituen kulturgunean, ale-
gia. Eskiatzen gozatzen dutenek, berriz, ez lukete galdu beharko Holmenko-
llen-era hurbiltzeko aukera, bertan baitaude Eski Nordikoaren Museoa eta
munduko eski-tranpolin handienetakoa. Gainera, hiriaz eta fiordoaz bere
handitasun osoan gozatzeko parada ere izango du.

VENEZIA BEREZIA MUNDU GERRAKO BASE BATEAN

“Venezia, La Serenissima” erakus-
keta dago ikusgai Bordelen, mun-
duko arte digitalaren zentrorik
handiengan; Bassins de Lumières
aretoan, alegia. Erakusketa bera ku-
riosoa bada ere, eszenatokia ere dei-
garria da oso: Bigarren Mundu
Gerran alemanek erabilitako itsas-
pekoen basea da.

Paretetan proiektatutako Tintore-
tto, Bellini, Canaletto eta beste hain-
bat artistaren artelanak gidaritzat
hartuz, bisitariak bidaia artistikoa
egingo du Gianfranco Iannuzzi sor-
tzaile artistikoak diseinatutako Ve-
neziako unibertsoan barrena. Kanal
Handian zein kalezulo, plaza eta mu-
seoetan ibiliko da pasieran artez in-
guratuta. (PHILIPPE LOPEZ)



ZABORRA JASOTZEN «HIPOMOBIL» GAINEAN

Christine Sallek eta bere lankideak
zaborra biltzen dute, astean behin,
Frantzia iparraldeko Le Mans ba-
rruti historikoan, Plantagenêt-en,
hiriko Erdi Aroko erdialdean. Baina,
horretarako, laguntzaile berezia
dute: 9 urteko Doupette de Lucé
behor indartsu eta langilea.

Astero, astearte goizetan, 800
etxetako hondakinak jasotzen di-
tuzte beren “hipomobil” gainean;
izan ere, bertako kale harriztatu eta
estuetan ezin dira ohiko zabor-edu-
kiontziak jarri. Plantagenêt maiz
zine plato bihurtu delako da eza-
guna. (JEAN-FRANÇOIS MONIER)



“IMAGINE PICASSO IMMERSIVE”

San Frantziskon, Skylight at The Armory-n, “Imagine Picasso-The Immersive Exhibition” erakusketa berezia dago ikusgai. Orain arte esparru honetan egindako multimedia-esperientziarik handiena da, Picassoren margolanak ikuspegi artistiko garaikide batek erakusten dituen.

Artistaren 200 pintura erraldoiren bihotzean sar daiteke bisitaria, xehetasunik txikiak ere metodo digitalen bidez arakatzeko. Etengabeko mugimenduan, badirudi obrek beren markoetatik salto egiten dutela, une batez, leku gehiagoren bila. Egia esan, bisitariak asko gozatzeko dute. (JUSTIN SULLIVAN)



HONDAKIN PLASTIKOAK, SURF TAULEN ORDEZ

Olatu honek ez ditu surflariak “garraiatzen”, hondakinak baizik; batez ere, zabor plastikoak, kolore eta tamaina guztietakoak. Antzeko irudiak, tamalez, gero eta sarriago ikusten dira planetako itsaso eta ozeanoetan; kasu honetan, Thaiandiako Golkoan ateratako argazkia da; zehazki, Koh Samuiko hondartza batean. (Mladen ANTONOV)



ESPERIENTZIA BEREZI ETA IZOZTUA, IGLU BATEAN

Kaxmirko Gulmarg eski-estazioko hotel bateko jabeak, ahalik eta turistarik gehien erakarri nahian, iglu bitxi bat eraiki du bezeroei aire zabaleko neguko esperientzia berezia eskaintzeko; jakina, esperientzia berezia bezain hotza, izoztua. Srinagarretik 55 kilometro iparraldera dago eraikin zuria. (TAUSEEF MUSTAFA)



“GAME OF THRONES” PARKEA

“Game of Thrones” amaitu eta hiru urtera, telesail ezagunari buruzko lehen parke tematikoa zabaldu dute Banbridge herri txikian, Belfastetik hurbil, bertako zenbait parajetan eszena ikusgarriak grabatu baitziren.

Seguruenik, George R.R. Martinek sortu eta HBO kate estatu-batuarrak pantaila txikirako egokitutako Erdi Aroko fikziozko unibertsoaren jarraitzaileen meka bihurtuko da, baina telesail arrakastatsu bat sortzeko prozesuetan interesa dutenek ere biziki gozatuko omen dute.

(PAUL FAITH)



ANKARAKO MASKOTEN HILERRIAN, BISITAN

Inork ez daki galdutako lagun bat bisitatzera joan diren edo ez. Alabaina, hor daude, bueltaka, maskoten hilerri berezi batean. Gutxi dira animaliei soilik eskainitako kanposantutak dituzten herrialdeak. Ankararen egon zen bat (irudian). Turkiako hiriko udal ordezkariak erabakita, 1997an zabaldu zen, baina 2014an itxi zuten. (ADEM ALTAN)



ETXE BAT ALDERANTZIZ, ILUSIO OPTIKO TURISTIKOA

Fritz Schal austriarrak etxe bitxi samarra eraiki du Kolonbiako Guatavita herrian: etxe bat alderantziz. Artistak berak “Etxe eroa” deitzen dio, garuna nahastuz ilusio optikoa errealitate bihurtzen duelako. Erabilitako metalezko egiturak 18 tonako pisua du. Urtarrilean inauguratu zen, eta da goeneko erakargarri turistiko bilakatu da. (J. BARRETO)



BALEEN EHIZARI AMAIERA EMANGO DIO ISLANDIAK

Balea urdin bat, Hvalur Hf balea-estazioan, hiltzeko zain, Islandiako Hvalfjördurren. Baleak ehizatzen jarraitzen duten munduko hiru herrialdeetako bat da Islandia, baina, Gobernuak iragarri duenez, 2024an ehizari amaiera emango dio. Datuen arabera, ez omen da jarduera ekonomiko garrantzitsua herrialdearentzat. [R. READ]



BAINU ERLAXAGARRI ETA SENDAGARRIAK

Bulgariako Rupite herritik gertu, mineralen iturri termal naturalak daude, baina ez dira iturri arruntak, propietate sendagarriak omen dituzte eta. Ura, gainera, epela da! Horrexegatik hurbiltzen dira sarri inguruko biztanleak –baita turistak eta kanpotarrak ere– bainu erlaxagarriak hartzera. Neguan ere ez dute kale egiten! [NIKOLAY DOYCHINOV]



GERRAN LAPURTUTAKOAK, BAGDAD-EN IKUSGAI

Irakeko Museo Nazionalean, Bagdaden, ikus daitezke Libanoko museo pribatu batek orain gutxi Iraki itzultitako antzinako artelan batzuk. Gerra garaiko urteetan lapurtutako objektuen artean, idazkera kuneiformeko 300 oholtxo eta balio handiko hainbat irudi zizelkatu daude, besteak beste. Horietako bat da irudian agertzen dena. [S. ARAR]



æek

22.korrika

Amurriotik Donostiara 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era



**Noiz pasatuko
da Korrika
nire herritik?**

www.korrika.eus
webgunean ikusi
herri eta ordutegi guztiak

HITZEKIN